

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

342 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Urtarrila



Nabarmen^{tzekoak}

- > “Gomuta”, “Socialdog” eta “Iraun” dira Wanted 2019ko programaren bigarren deialdian hautatutako proiektuak
- > “Corion”-ek online merkaturatzen du streetwear arropa-marka
- > Wantedek saritutako bi film laburren estreinaldia RKEn



Wantedek saritutako bi film laburren estreinaldia RKE

RKE-Romo Kultur Etxeak *The last heart* eta *Hondale*, hurrenez hurren, Adrian Nogalesen eta Ainara Mentxakaren film laburren emanaldia hartuko du, urtarrilaren 10ean, 20:00etan. Proiekzioaren ondoren solasaldia izango da film laburren bi zuzendariekin, baita lunch txiki bat ere.

The last heart

Film labur honek 3 minutu eta 10 segundo irauten du eta bere protagonista nagusia *Aileen* da, ibaitik haratago dagoen hilerri bateko zaindari eta ninfa. Ama Zuhaitz Handia eta, orduero jo beharrean, heriotz bat jazotzen den bakoitzean jotzen duen kanpai handi bat zaintzea da bere lana. Uniformea jantzita duen eta bihotz-egarrria duen Henson izeneko saia iristen denean *Aileen*en eta hilerriko guztien bizitza aldatuko da.

Hondale

Lan honen iraupena 12 minutukoa da. *Begoña* da bere protagonista nagusia. Iraganeko mamuak itzuli egin dira *Begoñaren* burura. Uztailaren 15a da, eta 75 urte dira *Begoñak* bere aita galdu zuela. Ordutik, aita azken aldiz ikusi zueneko portura urtero-urtero hurbiltzen da loreak eramatera; beti bete du promesa hori. Oraingoan, berriz, dena desberdina da. *Begoñak* ez du gogoratzin zein egun den, ez daki zergatik duen lore sorta bat eskuarte, ezta ere zergatik esaten dion ilobak uretara botatzeko. *Begoñaren* nahasmenaren aurrean *Amaiak*, ilobak, ahalegin guztiak egingo ditu amamak bere bizitzako azken buru-argitasun unea izan dezan.

BEKA SARIAK

* **Euskadiko Gazteak Lankidetzak**. 1990etik 1998ra (biak barne) jaiotako gazteei zuzendutako programa, gehienez ere 100 lagunentzat, baldin eta EAEn erroldatuta badaude eta jardura egiten den herrialdeko nazioarteko hizkuntza ezagutzen badute. Helburua: garapenerako lankidetzak ekintzak Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan, hiru hilabetez, ahal dela uztailetik urrira. Izen-emateak 2020ko otsailaren 6ra arte, online www.gazteukera.euskadi.eus webgunean.

* **EuskarAbentura 2020**, izen bera daraman elkarteak bultzatua, 16 eta 17 urte bitarteko 120 gazteri zuzendua eta euskaraz hitz egiten dutenei zuzendua. Euskal geografia zeharkatuko dute uztailen, gure kultura eta historia ezagutzeko. Izena emateko aurkeztu beharreko lan motak, martxoaren 15a baino lehen, historikoa, literarioa, ikus-entzunezkoa, musikala, plastikoa edo sorkuntza digitala izan daitezke. Izena ematea eta informazioa www.euskarabentura.eus webgunean

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 3, ostirala: ASANBLEA: OTSAILEKO PROGRAMAZIOA
Hilak 4, larunbata: IRTEERA: IZOTZEAN PATINATU
Hilak 7, asteartea: TAILERRA: UKIMENA LANDU
Hilak 9, osteguna: SUKALDARITZA: PANINIAK
Hilak 12, igandea: EKINTZA: ZURRUMURRUAK
Hilak 15, asteazkena: TAILERRA: LEGOAK
Hilak 16, osteguna: EKINTZA: HORMAK MARGOTU
Hilak 18, larunbata: EKINTZA: LUDOTEKA: BIZKOTXOA EGIN
Hilak 21, asteartea: EKINTZA: HORMAK MARGOTU
Hilak 26, igandea: SUKALDARITZA: OILASKO PATATEKIN
Hilak 30, osteguna: EKINTZA: URKATU JOLASA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 3, ostirala: ASANBLADA: OTSAILEKO PROGRAMAZIOA
Hilak 10, ostirala: MASTER CHEF: KREP GAZIAK
Hilak 12, igandea: IRTEERA: ZURRUMURRURIK EZ!
Hilak 14 eta 21, asteartea, eta 16 eta 23, osteguna: ESKULANA: BUZTIN POLIMERIKOZKO FORMAK
Hilak 18, larunbata: MASTER CHEF: ALIGOT FRANTSESA
Hilak 31, ostirala: TAILERRA: KAMISETEN SERIGRAFIA

Sakelako telefonorako bi aplikazio eta proiektu eszeniko bat dira “Gomuta”, “Socialdog” eta “Iraun” dira Wanted 2019ko programaren bigarren deialdian hautatutako proiektuak

2019ko Wanted programaren bigarren deialdiak hiru proiektu hautatu ditu dagoeneko: *Gomuta*, *Socialdog* eta *Iraun* dira, hain zuzen ere, udal egitasmo honen laguntza jasoko duten hiru ideiak. Wanted ideia-lehiaketa Gazteria eta Ekonomia Sustapeneko udalzerbitzuek bultzatzen dute, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek garatzen dituzten era guztietako proiektuak, berritzaileak izan edo ez, abian jartzen laguntzeko, finantzaketa, aholkularitza tekniko, orientazioa eta abar falta dituztelako horiek gauzatu daitezken. *Gomuta* egitasmoa, telefono mugikorretarako aplikazio bat da. Bere helburua buruko gaitasuna dutenen senideentzako laguntza ematea da. *Bestalde*, *Socialdog* ere telefono mugikorretarako aplikazioa da. Txakurra dutenei zuzenduta dagoen aplikazio honek



aukera emango du txakurra paseatzera irteteko orduan beste erabiltzaileen kokapena eta haiei buruzko informazioa ezagutzeko.

Iraun adineko pertsonetako solasaldietatik abiatuta sortutako proiektu eszenikoa da. Bertan hainbat disziplina artistiko bilduko dira, besteak beste, dantza garaikidea eta dantza bertikala.

Proiektuen pertsona sustatzaileak ondorengoak dira: Kerman Sanjuan, Juan Ignacio Llorente eta Gaizka Urkizo (*Gomuta*); Jorge eta Alvaro Robledo eta Ander Gallego (*Socialdog*); eta Maitane Sarralde (*Iraun*). Proiektuek hurrengo zenbatekoak jasoko dituzte: 9.676,91€ *Gomuta*-k; 8.923,09€ *Socialdog*-ek; eta 9.200€ko kontratazioa *Iraun* proiekturako.

Wanted programan saritutako proiektuetako bat izan zen “Corion”-ek online merkaturatzen du streetwear arropa-marka

“Corion” Iñigo Garciak, Ignacio Infante eta Alexander Michajlowskik sortutako streetwear arropa merkaturatzeko proiektuak dagoeneko badu bere web orria: www.corionrevolution.com. Izan ere, 2019an Wanted programan saritu zuten proiektua. Tresna honen bidez, Mondragon Unibertsitateko LEINNEKO (Lidergoa, Ekintzailetza eta Berrikuntza) hiru ikasle horiek munduaren inguruko streetwear estiloak transmititu nahi dituzte.



Ehun-modaren maitale gisa definitzen duzue zuen burua ...

Munduarekin komunikatzeko beste modu bat da, eta horren bidez aldarrikatzen dugu nor garen eta nor izan nahi dugun. Modaren industriarekin lotutako proiektuek ahalegin handia eskatzen dutela uste dugun arren, diseinu bikaina duen produktu bat asmatzea eta beste marka batzuekin lehiatuz balio diferentek lan-tzea zaila delako uste dugu, baina oso erronka motibatzaile eta pozgarritzat jotzen dugu, eta publiko guztiarekin partekatuta nahi dugu.

Nondik sortu da proiektuaren ideia?

2018an, eta gure hiriko egunerokotasunarekin nekatuta, gure bizitzako bidaiarik sinestezin, kitzikagarri eta aberasgarriena iri ekitea erabaki genuen. Irailan Asiara 4 hilabetez joatea erabaki genuen, gaur egungo hainbat arazoren aurrean begiak ireki zizkiguten herrialdeak bisitatuz. Horien artean, lan esplotazioa, emakumearen zapalkuntza, edo kutsadura ikusi genituen. Errealitate zirrargarri horren ondorioz, bigabekeria horiek amaitzeko

borrokan ari diren aldarrikapen-mugimenduak ikusarazi eta babesteko zituen proiektu bati ekin genion. Zain dugun etorkizun katastrofiko eta zailantzarriarekin kezkatuta dauden gazteak gara, eta gainerako gazteentzat bozgorailu izan nahi dugu, identifikatuta eta ordezkatuta sentitzeko bitarteko bat erabiliz.

Zer da Corion?

Corion gazteok aldaketaren alde dugun ordezkaritza da. Horretarako, ehungintzako produktu iraunkorrak sortzen ditugu. Ehungintza modaren sektorea oso potentzial handiko dibulgazio tresna bat dela aprobetxatuz. Gure helburua da gaur egungo gazteentzat bitarteko inspiratzailea izatea, belaunaldi *Lazy* bat, erreferenteak eta motibazioa behar dituen benetan ekintzari ekiteko eta nahi dutenaren alde borrokatzeko.

Zeintzuk dira balio horiek?

Iraunkortasuna (produktu jasagarriak sortzea), aldarrikapena (hiri-komunitate desberdinak batuz gure edukaren bidez eta gure balioak partekatzen dituzten markadun lankide-

tzak), eta komunitatea (bitartekoa gara, gure kanalen bidez mundua aldatzeko borrokan ari diren ekimenak, pertsonak eta abar ezagutarazi nahi ditugu).

Nola inspiratzen zarete?

Badakigu hiri-kulturak eragin handia duela belaunaldi honetan, eta, horregatik, mundu honetako hainbat artista eta ekimenetan oinarritzen gara gazteengana iristeko eta, horrela, ekarpen handia egin behar dugun hiri-kultura hori babesteko.

Zein fasetan dago orain proiektua?

Jaurtiketa fasean. Duela hilabete jarri genuen martxan gure webgunea. Horrek proiektua testatzeko balioa digula espero dugu, bai eta parte hartzen duen jendeak bilduma osoa eta etorkizuneko bildumak merkaturatzen lagunduko digula ere, marka hedatzearekin batera. Lehenengo jantziak *pre-order* bidez erosi ahal izango dira, eta gutxi gorabehera 2 hilabete behar dira azken bezeroarengana iristeko. Gure sare sozialen bidez emango dugu guztiaren berri: Instagram @corionrevolution eta Facebook Corionrevolution.